# XIII. Udaeskola

## Tabirako Azoka Asesores

Pasa den urtean bezela, Udaeskolako edizio berri baten antolaketarekin hasi dugu. Orain artekoari eutsi eta, gure eskualdean uda sasoian antolatzen diren jardueren artean, erreferente izaten jarraitzeko asmoa dugu.

**Azoka Asesores**-en laguntzarekin, saskibaloiarekiko zaletasuna bultzatzen jarraituko dugu; izan ere, bakarkako eta taldekako kontzeptuak hobetu nahi ditugu, ikastetxetatik datozen neska-mutilek maite dugun kirol honetan lagunartean jardun dezaten, hori bai, gure klubaren funtsezko balioak errespetatuz.

### 1.- Helburuak:

Parte hartuko duten **neska-mutikoek espero dutena izatea eta saskibaloi arloko beharrak asebetetzea,** beti ere, saskibaloiko udalekua dela kontuan hartuta.

Jarduera guztiak, kirol mailakoak zein ludikoak, **euskaraz** egitea**.**

### 2.- Entrenatzaileak eta begiraleak:

**Eskolak emango dituztenek Tabirako klubarekin** lotura dute, gehienak tituludunak, **Udaeskolako KIROL ZUZENDARIA**rekin batera.
Talde bakoitzean, gehienez, hamabi kirolari eta entrenatzaile bi izango dira; oso neurri egokia jarraipen zehatza egiteko hezkuntza, segurtasuna eta zaintzari dagokienez.

### 3.- Entrenamenduen programak:

Parte hartzaileen helburuak berdinak ez direnez, entrenamenduko hiru programa espezifiko eskaintzen ditugu, bakoitzak bere intentsitate, helburu eta ekintzekin:

Parte hartzaileen helburuak berdinak ez direnez, entrenamenduko hiru programa espezifiko eskaintzen ditugu, bakoitzak bere intentsitate, helburu eta ekintzekin:

- **Lehen urratsak saskibaloian** (2013-2011 bitartean jaiotako neska-mutikoak): oraindik talde batean hasi barik, saskibaloian hasten diren neska-mutikoei zuzenduta, ikasi eta hobetzeko
- **Erdi mailako programa** (2010-2007 bitartean jaiotako neska-mutikoak): eskolan edota talde federatuan saskibaloian jarduten duten zein jarduten ez duten neska-mutikoei zuzenduta, entrenamendu serioak eta intentsitate ertainakoak. Saskibaloiko jolasak eta beste ekintza batzuek ere egingo dira.

- **Goi mailako programa (**2010-2007 bitartean jaiotako neska-mutikoak): eskolan edota talde federatuan saskibaloian jarduten duten neska-mutikoei zuzenduta. Entrenamendu serioak eta intentsitate handikoak izango dira teknika eta jokoa ulertzen hobetzeko. Interesatuek dedikazioa eta gogoa erakutsi beharko dute.

### 4.- Toki erreserba:

Bi aste osorako izena ematen dutenek, toki erreserban lehentasuna eukiko dute. Aste bakarrean interesaturik direnak, inskripzio horrian zein den astea lehenengo momentutik argi markatu behar dute. Ez badago zehaztuta, bi asterako apuntatutak egongo dira eta kantitate osoa ordaindu beharko dute.

Betebeharrak: 6. puntuan aipatutako banku-kontuan parte-hartzailearen izenean fidantzako ordainagiri kopia (130€ bi aste datozenak et 100€ aste bat datozenak) 7. puntuan aipatutako dokumentazioarekin batera bialdu 2020ko apirilaren 22a baino aurretik, **udaeskola@tabirako.eus** helbidera.

Zenbateko hori deskontatu egingo da Udaeskolako behin-behineko matrikula egin eta ordaintzen denean; baina parte ez hartzea erabakiz gero, ez da dirua itzuliko, justifikatuta ez badago.

# XIII. Udaeskola

## Tabirako Azoka Asesores



**Noiz:** **Ekainaren 22tik uztailaren 3ra** (astelehenetik ostiralera)
**Ordutegia:** **9.00 – 17.30.**
**Adina:** 7 eta 13 urte bitartekoak **(2007 eta 2013ra** artekoetan jaioak, urte biak barne)

**Kirol instalakuntzak:**

- Landako Polikiroldegia
- Landako Eskola

Udaeskolan, neska-mutikoen ezaugarri guztiak aintzat hartzen ditugu: adina, saskibaloiari buruzko ezagupena, bakarkako teknika eta egoera fisikoa. Hala ere, uda sasoian izango dela jakinik, ludikotasuna ere kontuan hartu dugu eta hainbat jarduera prestatuko ditugu interesa eta lagunarteko harremana pizteko. Halaber, udaeskola atsegina eta entretenigarria izan dela gogora dezaten nahi dugu.

**Jarduera ludikoak:**

- Pstikomotrizitatea eta kognitibo garapena
- Saskibaloiari buruzko hitzaldiak
- Igerilekua
- Bisita Udaletxera

Bazkaltzeko **Landako Eskola**ko jantokia erabiliko dugu, 12:30etik 13:30era; sektoreko enpresa espezializatu batek zerbitzatuko du jatekoa. Udaeskola hasi aurretik, menuak bidaliko dizkizuegu.

Arratsaldean, dutxatu ondoren, merienda emango zaie neska-mutikoei.

## 5.- EKIPAZIOAK:

**Ekipazioen neurketa:**

Aurten ere, ekipazioen jasoketa errazteko eta hauek zeuen beharrak ahalik eta hobeto betetzeko, neurketak egingo ditugu.
**Datak: maiatzaren 6 eta 7** (disponibilitate arabera)
**Ordua: 18-tik 19.30-ra**
Lekua: Landakoko Polikiroldegia
Umeekin etortzea beharrezkoa izango da, ekipazioak probatu ta gero eskatutak daudenean, aldatzeko aurkerarik ez da egongo eta.

**Ekipazioen jasoketa:**

Datak: **ekainaren 17 eta 18a**, leku eta ordutegi berdinean.
Bertan, materiala emango dizuegu, eta horrela, lehen egunean izaten diren pilaketak saihestu egingo ditugu. Lantaldeak ere bertan egingo ditugu. Beraz, inportantea da bai 19-ean edo 20-an joatea, zuen disponibilitate arabera.

**Jasoko duten materiala:**

- Kiroletako poltsa
- Ekipazio bi.
- Kirol Jertsea
- Igerilekurako txanoa
- Saskibaloiko baloia.

Egun bakoitzean bietako jantzi bat ekarri beharko dute jantzita, eta bestea poltsan, jarduerak amaitutakoan janzteko. Halaber, dutxarako behar direnak, saskibaloirako oinetako egokiak eta ur botilatxo bat.

## 6.- PREZIOAK eta BALDINTZA EKONOMIKOAK:

Ez da Tabirakoren asmoa, inondik inora, etekin ekonomikoa ateratzea jarduera honekin. Horregaitik pasa den urteko prezioak mantenduko ditugu. Behar dugun dirua gastuei aurre egiteko baino ez dira, horixe da gure asmoa.

Zerbitzu onena prezioa onenean eskaini nahi dizuegu eta, bide batez, Udaeskolan parte hartzea denontzako oroitzapen atsegina izan dadin.

**Prezioak:** **310 €** Tabirako-ko ume bazkideak
**330 €** Tabirako-ko ume bazkideak ez direnak

**DESKONTUA:** 2. eta 3. seme/alabek 10 euro gutxiago ordainduko dute.
Aste bateko epealdiak, 260€-tako prezioa edukiko du.

**ORDAINTZEKO EPEAK:**

- Inskripzioa: apirilaren 22-an baino lehenago
- Gelditzen den zenbatekoa: ekainaren 5-an baino aurretik.

**ORDAINTZEKO LEKUA:**
**BANCO BASCONIA** ES80 0075 4659 16 0700 259956

Bestalde, jakinarazi gura dizuegu familiaren egoera ekonomikoa ez dadila oztopoa izan zuen seme-alabak Udaeskolara ez bidaltzeko. Beraz, familiaren batek diru-arazoak balitu, gurekin berba egin lezake **688 64 64 15** telefonora deituta. **Diskrezio osoz** kudeatuko dugu gaia eta soluzioa eman ere bai.

## 7.- BEHIN BETIKO IZEN-EMATEaren dokumentazioa :

- Ordainagiriaren kopia (**UDAESKOLA Tabirako + umearen izena** idatzita, mesedez).
- Izen emate orria beteta.
- Osakidetzaren txartelaren kopia
- Tabirakoko bazkide txartela (bazkidea bazara)

Aipaturiko dokumentazioa ondoren azaltzen den eran bidal dezakezu:

- Posta elektronikoz (dena eskaneatuta) udaeskola@tabirako.eus, helbidera, edo
- Tabirakoren bulegora ekarri, edo bulego ondoko postontzian utzi **apirilaren 22**-a baino lehenago.

Behin behineko izen-ematea **apirilaren 22**-a baino lehen ez badago eginda, izen-ematea bertan behera geratzen dela ulertuko dugu. Edozelan ere, zuen seme-alabak parte hartzeko asmorik ez balu, albait arinen baja ematea eskertuko genizueke, horrela beste neska-mutiko bati aukera emango genioke.

Bestalde, jakinarazten dizuegu, egin ahala, jardueren irudiak eskegiko dizkigula Tabirako-ren web gunean **(www.tabirako.eus).**

## 8.- Harremanak:

Udaeskolari buruz zalantzarik baduzue eta zerbait kontsultatzeko, hona hemen komunikatzeko bideak

**Tel.: 688 64 64 15**
**udaeskola@tabirako.eus**

Azoka asesores

# XIII. Udaeskola

Tabirako Azoka Asesores

BAQUÉ Café

TABIRAKO

## KOLABORATZAILEAK:

AZOKA ASESORES
CAFES BAQUÉ
DURANGO-ko udala
DURANGO KIROLAK
GRAN HOTEL DURANGO
DURANGO-ko MANKOMUNITATEA
BEÑAT ARRAINDEGIA
LANDAKO ESKOLA
San Antonio IKASTETXEA
KURUTZIAGA IKASTOLA
JESUITAK IKASTETXEA
NEVERS
IES Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI
ZABALARRA ESKOLA